

## Hil arte, bizi!

Argia sarietako bat irabazi du Izan Iñurri elkarteak, '(Min)bizi' podcastagatik. Kide batzuekin elkartu gara / 6-7

IZAN IÑURRI

# Lozorrotik esnatzeko kolpeak

Santa Ageda bezpera ospatu dute lasarteoriatarrek. Makilak eskuan eta baserritar jantziak soinean, ederki aritu dira kantuan / 8-9

Lau garbigune txikitan birziklatu ahal izango dituzte herritarrek, aurrerantzean, hainbat hondakin / 2

Otsailetik ekainera bitarteko emakumeen zentroko ikastaroak iragarri ditu Lasarte-Oriako Udalak / 3

Egitarau oparo eta berritua prestatu dute Inauterietarako; festa bihar hasiko da, hilak 11, Euskal Inauterietan / 4

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren lehen saiora 130 ikus-entzule joan dira; bi gehiago egingo dituzte / 5

Naroa Furundarena 23 urtez azpiko Espainiako txapelkun berria da jauzi hirukoitzean / 10

Junior igerilariek dominak, markak eta sailkapen berriak lortu dituzte Gipuzkoako txapelketan / 11

2021ean JAI OAK

## ERALDAKETA BATEN ALDE

La★Salle

Berrozpe  
Andoain

## ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Informazio gehiago:  
[www.lasalleberrozpe.eus](http://www.lasalleberrozpe.eus)

AURREMATRIKULAZIO  
DATAK



OTSAILAK  
13tik · 24ra





# Lau garbigune txiki jarri dituzte herritarren eskura

Basaundi eta Zabaleta auzoetan, Ola kalean eta Hipodromo etorbidean jarri ditu udalak hondakin zehatz batzuk jasotzeko puntuak. Pilak, CDak, tinta tonerrak, bonbillak, tresna elektronikoen bateriak eta sakelako telefonoak birzikla ditzakete herritarrek horietan

## Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzu Publikoetako zinegotzi David Mateosek jakinarazi dute zenbait garbigune jarri dituela udalak gaikako bilketa hobetzeko asmoz.

Horien kokalekuak estrategikoki erabaki dituzte; hondakinak biltzeko edukiontzi islen ondoan jarri baititu. Zehazki, hauek dira kokalekuak: Basaundi auzoan, tenis pistaren ondoan; Zabaletan, frontoiaren atzean; Ola kalean, ONCEko kioskotik hurbil, eta Hipodromo etorbidean, taxien gareleku parean.

Udal ordezkariek aipatu dute neurri sorta bat abiatu dutela udalerriko birziklatze tasa handitzeko helburuarekin, hala nola lurpeko kontainerren kentzea, zabor edukiontzi isla osoen distribuzioa aldatzea,



Lau garbigune txiki bat. TXINTXARRI

errefusaren txartel bidezko kontainerrak hornitzea, kontzientziatzeko kanpaina egitea, eta abar. Horien artean azken hau: garbigune txikiak jartzea.

Neurri multzo zabal horren barruan, udaleko aurrekontuetan

partida bat onetsi zen garbigune txikiak erosteko, eta herritarrek bertan era askotako elementuak utzi ahal izango dituzte. Honako elementu hauek sailkatu ditzakete horietan: CDak, DVDak, tapoiak, pilak, bonbillak, sakelako telefonoak eta horien kargagailuak, e.a. Blipvert Recologics enpresari adjudikatu zaio lau garbigune txiki hornidura, 12.463 euroren truke. Horietako bakoitzak zazpi zulo ditu, bertan utz daitezkeen elementu bakoitzaren irudi batekin berezita.

Udal ordezkariek azaldu dute hondakinak birziklatzeko eta kontzientziatzeko sistema dual bat dela, hiriko hondakin solido txikiak gaika biltzea ahalbidetzen duelako eta, aldi berean, udalari kanpaina munizipalak egiteko aukera ematen diolako.

## TEK komunitateari buruz informatzeko bulego mugikorra

Tokiko Energia Komunitateari (TEK) buruzko informazioa jaso eta izena emateko aukera izango dute herritarrek

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ezagutarazi du informazio guneak jarriko dituela Lasarte-Orian zehar, herritarrek Tokiko Energia Komunitateari (TEK) buruzko informazioa jaso eta izena emateko aukera izan dezaten. Zehazki, bulego mugikor bat izango da: hilaren 6tik hasi eta martxoaren 5era arte zenbait eremutan egongo da, goizez nahiz

arratsaldez, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Udalak bizilagunei gomendatu die elektrizitatearen faktura emateko. Hilaren 6tik 10era egingo da lehena, Antonio Mercero gunean. Hilaren 6an, 8an eta 10ean, goizez; eta hilaren 7an eta 9an, arratsaldez. Gainerako guneak noiz eta non egongo diren kontsultatzeko [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) ataria kontsulta dezakezue.

## Sahararren alde janaria bilduko dute larunbatean

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria Taldeak jakinarazi du janari bilketa solidarioa egingo duela larunbat honetan, hilak 11; goizez izango da deialdia, 10:00etatik 14:00etara, Super BM eta Eroski supermerkatuen atarietan. Produktu hauek jasoko dituzte: azukrea, kontserbak, lekaleak eta konpresak.

## Herriko jaiei forma emateko prozesua laster itxiko dute

Lasarte-Oriako Udalak gogorarazi du herritarrek hilaren 12ra arte egin ditzaketela aurtengo sanpedroetarako proposamenak, hiru multzo hauetan banatuta: euskal musika taldeak; nazio mailako musika taldeak; eta musikarekin zerikusia ez duten jarduerak. Etxean jasotako eskuorria bete edo [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)-en sartu behar dute.

## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



TXINTXARRI

## Lehen zortzikoa jakinarazi du EH Bilduk

Udal Hauteskundeetarako zerrendako lehenengo zortzi kideak aurkeztu ditu EH Bilduk. Esti Garmendia Arrietak, Lasarte-Oriako EH Bilduren alkategaiak iragarri ditu udal hauteskundeetarako lantaldea osatuko duten gainerako kideak, hauteskunde zerrendan izango duten ordenaren arabera: Uxue Loinaz Urruzola, Asier Gorostegi Aliri, Oihan Agirretxe Iradi, Sandra Barkaiztegi Navarro, Alex Ramos Portero, Naia Perez Agirre eta Pablo Barrio Ramirez. Txalo artean hartu dituzte deialdira batu diren herritarrek. Datozen egunetan izango dute aipatu alderdiko oinarriek zerrenda berresteko aukera.



TXINTXARRI

## Zabaletatik hasi dira

Lasarte-Oriako PSE-EEK parte hartze prozesu bat abiatu du maiatzeko Udala Hauteskundeetarako programa prestatzeko. Hala, datozen asteetan auzoz auzo joango dira herritarren proposamen edo ideiak biltzen. Lehen geltokia Zabaleta izan da. Hurrengoa, berriz, Zatarainen izango da, bihar, hilak 11, 11:00etatik 13:30era. Agustin Valdivia alkatea eta egungo zinegotziak izango dira bertan.



# Ikastaro ugari, emakumeen zentroan

Otsailetik ekainera arteko Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko ikastaroak iragarri berri ditu udalak. Horietan aritzeko datozen egunetan egin behar da izen ematea

## Txintxarri

Ekainera arteko ikastaroen berri eman du Lasarte-Oriako Udalak. Horietan aritzeko izen ematea datorren astean egin beharko dute interesdunek; hilaren 13tik 15era. Bi modutan egin ahalko dute inskripzioa. Zentroa bertaratzea izango da aukera horietako bat. Bide horretatik egin nahi dutenek, ordea, kontuan izan beharko dute zentroaren ordutegia: 09:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era. Bestalde, sarean ere egin ahal izango dute, [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) atarian.

Ohi bezala, aurtengoetan ere Lasarte-Orian erroldatuta zein erroldatu gabe daudenek parte hartu ahal izango dute, nahiz eta lehentasuna duten lasarteoriarrek.

Ikastaroen gaineko informazio gehiago nahi duenak Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa joan behar du, honako ordutegian: 9:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era. Horrez gain, [emakumezentroa@lasarte-oria.eus](mailto:emakumezentroa@lasarte-oria.eus) helbidera ere idatzi daiteke, edo 943-36 39 58 telefono zenbakira deitu.

## Jabetze Eskolako ikastaroak

**Antzerkia** (otsailetik ekainera): astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara - gaztelaniaz - 51,00 euro

**Biodantza. Dantzatu (ezazu) indarra** (otsailetik ekainera): asteazkenetan, 9:30etik 11:00etara - elebiduna - 38,25 euro

**Zugandik: Sormen artistiko eta terapeutiko argazki tailerra** (martxotik maiatzera): asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara - euskaraz - 10 euro

**Gorputz kontzientziatik mugimendu askera** (otsailetik apirilera): astelehenetan, 15:30etik 17:30era - euskaraz - 10 euro.

**Emakume migratuen topagunea** (otsailetik ekainera): ostegunetan, 16:15etik 18:15era - gaztelaniaz - doakoa.

**Indarkeria gabeko gune askeak** (otsailetik ekainera): astelehenetan, 15:00etatik 17:00etara - gaztelaniaz - doakoa.

**Eskola feminista** (otsailetik ekainera): ostiralean, 16:00etatik 18:00etara - elebiduna - doakoa

**Lasarte-Oria: Istorio zumez egina** dokumentalaren aurkezpena egingo dutela ere iragarri. Ekainean izango dela aurreatu duten arren, data zehatzik oraindik ez.

## Ohiko ikastaroak

**Gorputza entzuten eta sentitzen ikasiz:** astelehenetan, 10:00etatik 11:00etara - euskaraz - doakoa.

**Jantzi konponketak eta patrioiak:** astelehenetan, 16:00etatik, 18:30era - euskaraz - doakoa

**Bitxiak:** astelehenetan, 16:00etatik 18:00etara - gaztelaniaz - doakoa.

**Kantua:** asteartetan, 11:45etik, 13:15era - euskaraz - doakoa.

**Batuka:** ostegunetan, 11:15etatik 12:00etara eta 12:15etatik 13:00etara - doakoa.

**Zaindu zure gorputza:** ostiralean, 10:00etatik 11:00etara - gaztelaniaz - doakoa.

**Egunerokotasunerako psikologia:** asteartetan, 16:00etatik 17:00etara, gaztelaniaz, eta 17:00etatik 18:00etara, euskaraz - doakoa.

**Eskulanak:** astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara - elebiduna - 51 euro.

**Ehoziriak:** asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara - elebiduna - 43,96 euro.

**Tai-xia:** asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara - euskaraz - 21,98 euro.

**Hipopresiboak:** ostegunetan, 15:00etatik 16:00etara - euskaraz - 44,55 euro.

**Yoga:** ostegunetan, 09:30etik 11:00etara - euskaraz - 38,25euro.



NEURE KABUZ  
AIZPEA AMAS

## Transmisioa

Aitortzen dut nahikoa erraz hunkitzen direnetakoa naizela; malkoak ez ditut horren erraz isurtzen, baina aurpegian berehala igartzen zait. Kontua da, espero ez nituen egoeretan ere emozioak dar darka jartzen hasi zaizkidala. Urrunera joan gabe, joan den eguneko Santa Ageda eskean. Adinagatik ote? Ez dakit, baina aztertu beharreko zerbait delakoan nago.

Harrigarria bada ere, semea izan zen joan den larunbatean koplak kantatzera joatera animatu gintuena. Neure artean pentsatu nuen berriro tren hura ez zela pasako, beraz, gonbitea bai ala bai onartu beharrekoa zela. Eta halaxe batu gintzaien Xumela abesbatzakoei. Gutxien espero nuenean hasi zen sumendia barrutik bor borka, semea *Oles oles lurra esna zaitez* abestearekin bat.

Halako ezusteko sentsazioak beste egoera batzuetan ere bizi izan ditut azken boladan, eta, bai, horien artean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldietan. Arraroa naizela pentsatuko duzue, baina badakit besteren bati ere gertatu izan zaiola *Behin betiko* eta halakoak entzuterakoan...

Moduren batean, txikitako nire Niarekin konektatzen dudala iruditzen zait kantu horiek entzuterakoan, bat-batean 8 urte izango banitu bezala, ume, ameslari, xalo... une magiko hori bizitzen.

Egoera jakin horietan sentimendu horiek edukitzea ez da kasualitatea. Gure ondorengoek guk bizi izan genuena bizitzen ari dira, gure kultura, gure usadioak, gure hizkuntza... Urtez urte, belaunaldiz belaunaldi, katebegiz katebegi osatzen joan garena, ohitura zaharrak berritzeko asmatan.

Denboraren makinan sartu eta hemendik 50 urte barru zer gertatzen den begiratzea gustatuko litzaidake. Hobe esanda, benetan gustatuko litzaidena katea apurto ez dela ikustea da.

## Eduardo Mujikak irabazi du Ogi Berriren zozketa

Ogiarekin bete du poltsa, eta Ogi Berriren Eguberrietako zozketarekin poltsikoa. Eduardo Mujika bezeroak irabazi du aurtengo 1.500 euroko saria. Horrelako albisteek, jakina, ez dute tristurarik eragiten: "Emaztea eta biok ikaragarri poztu gara".



Okindegian atera dute argazkia. TXINTXARRI

**txitxardin**  
BRASA ETA TRADIZIOA

ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK  
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

*Shu*  
CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA  
943-04 62 97 | 662 06 66 79  
[info@casahumada.com](mailto:info@casahumada.com)





Inauterietako egitaraua prestatzen lagundu duten konpartsa, komertzio eta erakundeetako ordezkariak. TXINTXARRI

# Argiak, kamera...ekin! Herria, mozorrotzear

Lasarte-Oriak hilaren 11tik 20ra ospatuko ditu Inauteriak, pandemia aurreko formatua berreskuratuta. Egitarau koloretsua prestatu du udalak konpartsa, komertzio eta elkarteekin elkarlanean. Aurtengo gaia 'Pelikulak' izango da. Jardueretan parte hartzeko deia egin dute

## Txintxarri

Hilabeteetako filmatze lanen ostean, prest dute dena estreinaldi handirako: badatoz aurtengo Inauteriak. Lasarte-Oriako Udalak egitarau oparoa prestatu du konpartsa, elkarte eta komertzioekin -Quantum Escape Room-ekin, zehazki-, hilaren 11tik 20ra. Eskuineko nahiz azpiko zatiduretan kontsulta dezakezue oso-osorik, eta baita [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean ere.

*Pelikulak* gaia proposatu du udalak aurretik. Egitarauko film batzuk remake-ak dira, konpartsen emanaldiak eta arratsaldeko desfilea kasu; pandemia aurreko

formatua berreskuratuko dute. Beste batzuk, berriz, aurtengo estreinatuko dituzte. Deigarrienetako bat Quantum Escape Roomek prestatu duen jokoa izango da: non dago galdutako Oscar saria? Galdera horri erantzun beharko diote jokalariek, hilaren 17an, 17:00etatik 19:00etara. Establezimendu horren arduradun Alex Zubizarretak azaldu duenez, familiek eta kuadrillek parte har dezakete, hirutik sei pertsonara arteko taldetan. Zazpi txanda prestatu dituzte, gehien jota zazpina multzokoak. Esteka honetan izena eman dezakete herritarrek, doan: [www.quantum.eus/inauteriak](http://www.quantum.eus/inauteriak).

Juan XXIII plazatik abiatuko dira partaideak, eta proba ugari gauzatu beharko dituzte herrian barrena, Oscar saria aurkitu arte. Zubizarretak azaldu duenez, 600 euro banatuko dituzte saritan.

Programako beste berrikuntza batzuk izango dira konpartsen desfilean jarriko duten furgoneta musikatuak, kalean dauden lagun kuadrillak festara batzeko; eta sardinaren ehorzketa, Inauteriei amaiera emateko.

Lasarteoriatarrek jardueretan parte hartzera animatu ditu udaleko Festak saileko buru Txus Alonsok, eta festa lehertu aurreko egunetan leiho eta balkoiak apaintzeko eskatu.

## Inauterietako egitaraua

Egitarau "erakargarria eta koloretsua" prestatu dutela nabarmendu du Lasarte-Oriako Udaleko Festak saileko buru Txus Alonsok.

### Hilak 16, osteguna

- **Kontzertu bufoa.** Udal Musika Eskolako ikasleek emango dute kontzertua, **19:00etan**. Sarrera, doan.

### Hilak 17, ostirala

- **Festa ikastetxeetan.** Herriko ikastetxeek Inauterien etorrera ospatuko dute, **15:30ean**.
- **'Scape room' jokoa: non dago Oscar saria?** Familiek nahiz kuadrillek parte hartu ahaliko dute Quantum Scape Room-ek antolatutako jokoa, **17:30etik 19:30era**, doan. Zazpina taldeko beste hainbeste txanda egingo dituzte, Juan XXIII plazatik hasita.
- **Mozorro festa, DJ batekin eta askariarekin.** 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako ekimena da. Karpa bat jarriko dute Antonio Mercero gune alboko arkupeetan, **19:00etatik 20:00etara**.

### Hilak 18, larunbata

- **Konpartsen aurkezpena eta bazkaria.** Konpartsak Okendo plazan elkartuko dira **12:00etan**; oholta gainera igo eta euren buruak aurkeztuko dituzte, dantzatzeko. Oaintxe in deul txarangak girotuko du goiza. **14:30ean**, elkarrekin bazkalduko dute partaideek, enparantza horretako karpan. Janaria bakoitzak eraman beharko du etxetik.
- **Super Bingoa.** Bazkalostea girotzeko, Super Bingoa aurrera eramango dute karpan bertan, **16:00etan**.
- **Konpartsa eta kuadrillen desfilea.** Konpartsek herrian barrena desfilatuko dute, **17:00etatik 20:00etara**. Aurten, atzealdean, musika jarriko duen furgoneta bat jarriko dute, kalean dauden kuadrillak anima daitezten. Okendo plazara iristean bakarkako mozorroen eta karroren sariak banatuko dituzte, eta txokolate beroa emango.
- **Disko jaia.** Parranda egin nahi duenak aukera izango du, Antonio Mercero gune alboko karpan, **23:00etatik 02:00etara**.

### Hilak 19, igandea

- **Erraldoi eta buruhandiak.** Herrian barrena ibiliko dira, Gautxori txarangarekin batera, **11:30etik 13:30era**.
- **Kontzertua.** Herritarrek dantzan jarriko ditu Ibai Berriak taldeak, **18:00etatik aurrera**, Antonio Mercero gune alboko karpan.

### Hilak 20, astelehena

- **Puzgarriak.** 8 urte arteko haurrentzat, Loidibarren frontoian, **11:30etatik 13:30era**.
- **Sardinaren ehorzketa.** Sardina ospetsuaren ehorzketa, hileta eta erreketak. Amaitzean, zezensuzkoa. **18:00etan** hasiko da. Okendo plazatik abiatuko dira.

## Hasteko, Euskal Inauteriak

Adi herritarrok, txantxoek eta xomorroek bihar bertutuko baitute ituna, hilak 11: ondo bidean, Lasarte-Oria gaitz guztietatik salbu egongo da beste 365 egunez. Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, Euskal Inauteriak ospatuko ditu, pandemia aurreko formatua berreskuratuta.

Zubietako plazatik hasiko da festa, **16:30ean**. Ekitalditxo bat egingo dute bertan, eta kalejiran aterako gero, Hipodromoko zubira arte; irten eta ordu erdira iritsiko dira.

Bertan izango dituzte zain lasarteoriatarrek, elkartu eta kantuan nahiz dantzan jarraitzeko gure herrian barrena. Erdigunean zehar ibili eta gero, Okendo plazara joango dira, azken ekitaldia aurrera eramatera, **19:00etan** hasita: senidetzea, dantza eta xomorro bihurria sutan erretzea. Amaitzean, txokolate beroa banatuko dute antolatzaileek.

Euskal Inauterietan parte hartuko dutenetako batzuek txantxo jantzi dotoreak egiten ikasi zuten Ione Artola jostunak gidatutako tailerlean, hilaren 8an.





# Itsas hondoa ezagutzeko bidaiari ekin diote

Hasi da CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloa. Lehen saioan planeta osoko itsaso eta ozeanoak ezagutu dituzte ikus-entzuleek; Sasoetako zein Landaberriko ikasleek, aldiz, Txikizikloan parte hartu dute, ingurumena zaintzeari buruzko kontzientzia hartzeko

## Txintxarri

Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditoriotik itsas hondora joan ziren CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren aurreneko saiora bertaratu ziren herritarrek, hilaren 6an. Han izan ziren 130 pertsonak 11 film labur ikusi zituzten ordu eta erdian. Kontrastez betetako errealitate bat ezagutu zuten: batetik, Lurra planetako itsaso eta ozeanoak, liluragarriak eta koloretsuak, bizitzaz beteak; eta bestetik, horiek arriskuan jartzen dituzten jarduerak, gizakiak aurrera eramaten dituenak, hala nola, sare mamuak, "itsasoko biodibertsitatearentzako arazo handienetako bat", zikloaren antolatzaileen esanetan. Hurrengo bi proiektzioak hilaren 13an eta 20an izango dira, 19:00etan. Sarrera, doan.

Danok Kide Elkarte eta Lasarte-Oriako Udala duela hamabost urte hasi ziren CIMASUB zikloa antolatzen, Real Sociedad taldeko itsaspeko sailarekin elkarlanean, lasarteoriatarrek itsas hondoa eta ingurumena zaintzearen garrantziaz kontzientziatzeko. Antolatzaile taldeko kide den David Sanchezek aurkezpenean adierazi zuen moduan, "denbora jada gure kontra daukagunean, gure ozeanoen egoera erreala



Sasoetako nahiz Landaberriko ikasleak, Txikizikloan. CIMASUB

ezagutarazteko helburuarekin eta hondaleak ezkututzen dituen altxorrek ahaztu gabe, hauek kaltetzen dituzten arazoak azalatu nahi ditugu". Horregatik, *Orain edo inoiz ez leloa aukeratu* dute aurtengo aldirako.

Lehen aipatutako hiru emanaldiez gain, kultur etxeko aurreneko solairuan erakusketa bat jarri dute, partaideek aurtengo ziklora aurkeztu dituzten ia 300 argazkietatik 24 onenak aukeratuta. Munduko toki ugaritako argazkilariek parte hartu dute: Argentina,

Belgika, Bulgaria... 17:00etatik 21:00etara irekiko dute esposizioa. Joateko azken eguna hilaren 24a izango da, ostirala.

**Txikizikloa, kontzientzia hartzeko** CIMASUBen helburu nagusietako bat belaunaldi berriak kontzientziatzea da. Horretarako, Txikizikloa aurrera eramaten dute urtero, Sasoetako nahiz Landaberriko ikasleekin, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoekin. Itsasoa ez ezik, inguruan duten guztia zaintzeko beharraz ohartarazi diete.



TXINTXARRI

## Ezusteko "bisita" bat

Vaiven Producciones antzerki taldeak *Redada familiar* antzezlaren emanaldia egin du kultur etxean. Etxean lasai afaltzen ari den familia batek poliziaren "bisita" bat jasango du, sarekada bat, ezustean eta ezordutan, kideren batek baimenik gabe argazki intimoak partekatu izanaren susmoa dutelako. Gardentasuna eta pribatutasuna talkan jartzen ditu obra horrek.



ANTOLAKUNTZA

## Artetxe-Urkiak bikotea garaile

Hamasei bikotek jokatu dute Xirimiri elkartearen Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako lehen kanporaketa. Finala jokatu duten bi bikoteak, Jon Pello Artetxe-Haritz Urkia eta Eneko Aranburu-Axular Iparragirre, Gipuzkoako fasera sailkatu dira. Sari nagusia hori izanagatik, beste bat zegoen jokoan: Etxezarreta harategiko bina txuleta eta txistorra bana. Artetxe eta Urkiak eraman dituzte.



# JABI GALLAGA RUIZ

CP DE ARABA / ARABAKO ESPETXEA

Porillo San Miguel bidea, 1  
01230 - Langraitz Oka (Araba)



# Entzun, ikusi, ikasi, aldarrikatu

Euskarazko Komunikazioen Argia sarietako bat jaso berri du Izan Inurri egitasmoaren '(Min)bizi' podcastak. Minbiziari buruz formatu horretan aritzeaz, saioero zabaltzen dituzten mezuez, etorkizunaz eta beste hainbat gauzaz hitz egin dugu inurritegiko lau kideekin

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Bidaia honek negarra, algarak, hotzikarak eta garuneko *esgintzeak* eragin ditzake. Dogmatiko, moralista zurruna bazara edota irreberentzia ez baduzu gogoko, ez gara podcasta entzuteak eragingo dizkizun albo efektuen erantzule egiten". *(Min)bizi* podcastaren saio bakoitzari ekitean ohartarazpen hori zabaltzen dute Izan Inurri egitasmoko kideek, besteak beste, ahoan bilorik gabe eta ikuspuntu feminista zein eraldatzaile batetik hitz egiten dutelako minbiziari buruz; tabuak

haizea hartzerantz bidaltzeko. Arrazoi horregatik beragatik, eta beste askorengatik, Euskarazko Komunikazioen Argia sarietako bat jaso dute, Entzunezkoen kategorian. Haiengana jo du TXINTXARRI-k, proiektu horri buruz gehiago jakiteko.

"Lau kide joan ginen saria jasotzera, baina azpimarratu nahi dut inurri guztiona dela, oso pozik gaude", adierazi du egitasmoaren sortzaile eta koordinatzaileetako batek, Julene Illaramendi herritarrek. Bera eta inurritegiko beste hiru kide etorri dira

Ttakinuneara: Sandra Barkaiztegi, Elenita Ginea *Elenita* eta Amaia Ullate. Lasarteoriatarrek lehen biak ere, eta usurbildarra hirugarrena. Denek hitz egin dute euren minbizi prozesuen berri podcastaren saioetako batean, lehen pertsonan. "Parte hartzeko deitu nindutenean, berehala esan nuen baietz", dio Amaiak. "Denek esaten zuten 'urduri nago', eta ni, aldiz, lasaiegi agian... Gure gaia da, gure gaixotasuna; nire esperientziak balio dezala egoera berean daudenei eta gizarteari erakusteko minbizi zer den, balio dezala tabuak ezabatuz". Sandrak kontatu du "biluzte ariketa bat" izan dela berarentzat: "Ohitura hori dugu Inurri: batzuetan gure gorputza erakusteko biluzten gara eta, oraingo honetan, barruan sentitzen duguna azaleratzeko. Bakoitzak bere erara bizitzen du prozesua, eta modu guztiak dira zilegi: hori adierazi nahi dugu". Elenitak azpimarratu du ordenagailu, sakelako telefono eta bestelako gailuetan ikusi eta entzuten den produktuaren atzean lan "izugarria" dagoela. "Eseri eta gure esperientzia kontatzen dugunontzat espontaneoagoa da, baina dena oso zainduta eta prestatuta dago".

Entzun, ikusi, ikasi eta aldarrikatzeko ikus-entzunezko bat da *(Min)bizi*. Hori da euskarazko podcastaren izena: zortzi kapitulu sareratu dituzte, eta bederatzigarrenarekin bukatuko dute—erdarazkoa, aldiz, *Dragón Cáncer* da, lau saio egin dituzte—. Elenitak aipatu duen lanaren haritik, lau pertsonakoa da zuzendaritza taldea: Jordina Arnau, Olatz Mercader (aurkezle ere badira biak), Julene Illaramendi eta Miren Cuervo. "Lau zaldiko gure motorra", gehitu du Amaiak. Aurkezlea, lekukotza



'Kokatu dezagun begirada' saioko irudi bat da hau. Ezker-eskuin: Sandra Barkaiztegi,

ematen duten inurriak eta aditu bat esertzen dira mahaiaren bueltan. "Iruditu zitzaigun modu aproposa izan zitekeela jendea Inurriari erakartzeko, badagoelako jendea ausartzen ez dena urrats hori egitera, mila arrazoigatik", zehaztu du Julenek. Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza bat jaso zuten, proiektua martxan jartzeko. Elenitak kazetari papera hartu du orduan, eta galdera hau egin: "Egitasmoa diputazioari aurkeztu zenioten eta gero dirua jaso, edo alderantziz?". Juleneren erantzuna: "Ideia lehendik genuen, baina finantzazioa behar genuen, argi genuelako produktu txukun bat egin nahi genuela. Egia da Inurri hein handi batean boluntariorik oinarritzen dela, baina garbi genuen podcasta aurrera eramateko lan profesionala egiten dutenei ordaindu behar genielan".

**Jendearen eskertzek, "indarra"** Minbiziari buruz jarduteko formatu hori arrakastatsua izaten ari dela uste dute. Julene: "Halakorik ez zegoenez, gabezia bat bete du eta funtzionatzen ari da. Egia da lan asko ematen duela,

**"MINBIZIAREN PROZESUA BIZITZKO MODU GUZTIAK DIRA ZILEGI; HORI ADIERAZI NAHI DUGU"**

baina merezi du". Podcasta zabaldu eta zabaldu ari da Amaia, Nafarroan dituen lagunei ere bai: "Horietako baten alaba Medikuntza ikasten ari da, eta harrirituta geratu zen. E'TBko albistegian ere izan gara berriki, eta jende askok hitz egin dit, zorionak eman... Indarra ematen dizu egiten duzunak balioa duela ikusteak". Hausnarketa hau egin du Sandrak: "Esker mezu ugari jaso ditut, eta eman berri diguten saria bezain polita da hori. Gainera, balio du erakundeei erakusteko nolako gauza politikak egin daitezkeen haien diruarekin".

Gero eta gehiago diren inurriek elkartzeko inurritegi bat behar dutenez, mezu garbi bat bidali diote Lasarte-Oriako Udalari, elkartzeko kide denen izenean, —egitasmoa gure herrian sortu zuten bi lasarteoriatarrek, Julenek berak eta Maialen Cuervo, 2019an—: biltzeko lokal bat behar dute. "Gero eta jende gehiagok galdetzen digu ea egoitza non dugun, baina ez dugu", esan du Julenek. Horren harira, Amaiak oroitu du Izan Inurriarekin harremana egin zuen egunean faltan bota zuela bilgunea fisiko bat: "Horrelako tokirik ez dugu oraindik, eta behar dugu: elkartu, lasai hitz egin...".

Proiektu berri bat sortzeko amets edo ideia bat izan, eta dirurik ez. Edo egitasmoa aurrera eramaten laguntzeko bilgunea falta. Edota dagoeneko martxan



Podcast saioetan ikusten ez den lanaren adibide bat, argazki honetan. IZAN INURRI





Olatz Mercader, Elena Ginea 'Elenita' eta Jule Goikoetxea. IZAN IÑURRI

dagoen zerbait hobetu nahi, baina ez dago sosik. Hori bera gertatzen zaio osasun sistema publikoari. "Osasun sistema pribatizatzen ari dira, kaka eginda dago; hor jarri behar dugu arreta", uste du Elenitak. *Tra-tra tratamendua* atalean parte hartu zuen Jesus Blanco onkologoaren hitzak e karri ditu Julenek, Onkologikoaren egoera islatzeko: "45 bat paziente izaten dituzte egunean; bakoitzarekin, bost minutu. Minbizia duzula esaten dizutenean, adibidez, edo bular bat kendu behar dizutela... Prozesatzeko astia behar dute. Horrez gain, denbora eskatzen du profesionalen hizkera tekniko ulertzeak, eta hori, euskaraz edo erdaraz hitz egiten baldin badakizu; pentsa nola dauden hizkuntza horietan moldatzen ez diren pertsona migratzaileak".

"Onkologoren bat, agian, zakarra izango da izaeraz, baina ez dut uste hori denik arazoa: lanez gainezka daude, eta egoera okerrera doa. Niri esan zidatenean titi bat kendu behar zidatela, goxo jokatu zuten eta mimatu ninduten, baina hori da segun eguna, segun denbora...", kontatu du Elenitak. Hori entzun eta berehala, Julenek esan du horrek ezin duela horrela izan, paziente guztiak behar dutela tarte jakin bat, entzun berri dutena eta haien egoera prozesatzeko. Osasun sistema hobetzearen aldarria "minbizia dugunona eta

gizarte osoarena" dela azpimarratu du Sandrak: "Inurri lana".

### Metastasia, are tabuago

Minbiziarekin lotura duten gai, ertz, gogoeta eta faseak lantzen dituzte podcastean. Metastasia ere bai. "Minbizia tabua bada, metastasia, zer esanik ez. Ez dute ahotsik inon. Badugu talde txiki bat Inurri; izugarritzko indarra dute, eskerrak ematen dizkiet saioetako batean parte hartzeagatik". Myriam Martin ikerlaria ere gonbidatu zuten: "Egoera oso prekarioran daudela kontatu zigun, metastasia ikertzean egindako aurrerapenak gizarteratzeko dirua behar dutela. Funtsezkoa da finantzazioa", gehitu du. Elenitari kapitulu hori gustatu zitzaion gehien: "Ez nuen fase horri buruz ia ezer ezagutzen". Era berean, onartu du "korapilo bat" sentitu zuela bere barruan. "Bularreko minbizia duten hamar pertsonatik hiruk metastasia izango dute; errealitate gogorra da hori, noski, baina erakusten eta hitz egiten jarraituko dugu", azpimarratu du Julenek.

### Mezu esanguratsuak

**"URTE HAU ERAIKI DUGUNA ZAINZERA BIDERATU NAHI DUGU, MARTXAN DUGUNETIK GAUZAK JASOTZERA"**

Osasun sistema publikoa zaindu eta indartzeari buruzko mezua ez da podcastaren saio bakar batean ere falta. Hauek ere ez: "Arrosa ez, minbizia izugarritzko marroia da"; "gu ez gara pink, punk baizik"; "bizi, minbizi, hil arte bizi!"; eta beste asko. Izan Inurri egitasmoaren muina zein den ere jartzen dute mahai gainean: "Ikuspuntu eraldatzaile eta feminista batetik, minbiziaren gainean dibulgazio, formakuntza eta, batez ere, akonpainamendu lana egiten duen elkarte da".

Inurritegia "izugarri" hazi da 2019tik hona. "Euskal Herri osora zabaldu gara", esan du Julenek. *Argia* hedabidearen aitortza jaso zutenean, herritarrak esan zuen Izan Inurri "bide luzea" duela aurretik. Horren aurrean, galdera: zer gehiago duzue eskuartean? Eta erantzuna: "Urte hau, batez ere, martxan dugun horretatik guztitik gauzak bueltan jasotzera bideratu nahi dugu, eta eraiki duguna zaintzera. Egia da askotan esan bai, baina gero kosta egiten zaigula betetzea... Noski, erabat irekita gaude edozertara eta hazten segi nahi dugu e, ez dut kontrakoa esan nahi, baina ez edozein modutara". Hori da elkartearen etorkizunetako gakoetako bat, herritarraren esanetan. "Etorriko diren gauza berriek erritmo eta denbora jakin bat beharko dute. Gaur egun, lau pertsonaren artean koordinatzen dugu elkarte. Horrek eskatzen duen guztiaz aparte, beste lan batzuk ditugu, bakoitzak berea".

### Pertsonak, erdigunean

Sandrarentzat, inurritegiko kide izatea "ahalduntze prozesu bat" izan da: "Inurri pertsonak jartzen ditu erdigunean, bakoitzaren behar eta ezaugarriak errespetatuz; ni horrela tratatu naute, eta nirekin harremanetan jartzen direnei jasotakoa ematen diet". Berarekin kontaktatu zuen Amaiak. "Ongi oroitzen badut, esan nion 'Sandra, jakin ezazu bularreko minbizia dudala eta prest nagoela egoera berean dagoen norbaitekin kafe bat hartzeko'. Marroi hutsa da hau, tokatu egin zaigu eta aurrera egin behar dugu. Elkarrekin, eta naturaltasunez".

Julenek ideia hau jarri du mahai gainean: "Zer esan behar diot minbizia duen pertsona bati, nola jokatu berarekin? Hori galdetzen digutenean, guk, naturaltasun osoz, erantzuten

diogu ez dagoela hitz edo ekintza magikorik. Uste duguna baino sinpleagoak dira gauzak, guk konplikatzen ditugu". Hori irudikatu du Amaiak: "Bilduta ginela, hizketan, negarrez hasi zen behin kideetako bat: altxa, eta besarkatu egin genuen, eskua luzatu zion batek... Horrela erreazionatu genuen".

Inurritegia hazten ari den heinean, eta bilgune finko baten faltan, hango eta hemengo plazak hartzen ari dira, ttipi-ttapa. "Plaza publikoak profesionalentzako soilik ez dira, zerbait konkretuki oso ongi egiten dutenentzako bakarrik. *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saioetan bezala [aurten, honezkeroko, 6-7 emanaldi martxan dituzte], ba joango gara gaiak jartzera, hobe ala okerrago, baina egingo dugu. Horrela, gauza denekin. Espazio horiek guztiak guretzat ere badira, aletxoak jarri nahi dugun ororentzat". Honakoa atxiki du: "Kontu horretan, gizonezko konkretu batzuek hartu dituzte plazak, haientzako; espazio horiek okupatzen ari gara".

### 'Kaña ematen', eta goxo

Inurritegiarekin bat egin nahi dutenek ez dute zertan bularreko minbizia izan, batetik; eta, izanez gero, ez dute titi bat edo biak berreraikitzearen aurka egon behar, bestetik. Oso argi utzi dute hori elkarrizketatuek. "Ikusarazi nahi dugu minbizi mota askoz gehiago daudela, ia-ia gorputzeko toki guztietan; ari dira horiek sufritzen dituztenak ere gurekin harremanetan jartzen", jakinarazi du Julenek. Amaia: "Nik, adibidez, ez dakit zer egingo dudun. Bularra berreraiki, ez... Egiten dudanean, ez dut presiorik jasan nahi inorengandik. Norberak balora dezala, baina sentitzen duenaren arabera erabaki dezala". Nabardura bat egin du Julenek: "Podcastean, adibidez, horri buruz ere hitz egiten dugu. Ez gaude titia berreraikitzearen kontra; nahi duguna da medikuek pazienteak artatzen dituztenean, automatikoki hori egitera ez bideratzea".

Bisita, podcast, bertso saio.. Formatua edozein izanda, bidea egiten segiko dute inurriek: "Aldarrien bidez *kaña ematen* jarraituko dugu, eta aldi berean goxo jokatzen, pertsonak eta zaintza erdigunean jarrita".

Elkarrizketa, osorik,  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian

## Inurritegira bidaiatzeko



(Min)bizi eta *Dragón Cáncer* podcasten kapitulu guztiak QR kode hau eskaneatuta ikusi eta entzun ditzakezue.

### FITXA TEKNIKOA

**Zuzendaritza:** Jordina Arnau, Olatz Mercader, Miren Cuervo eta Julene Illarramendi.

**Produktzioa:** Garate Estudioak. **Soinu teknikaria:** Martxel Arkarazo. **Grabaketa:** Unai Borda. **Postproduktzioa:** Aranburu Films. **Diseinu grafiko:** Señora Estudioa.

**Barne diseinua:** Mesa Presidencial. **Esker bereziak:** Tolosa jatetxea.



Bizipoza elkarteak *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoaren hirugarren CD-DVD lana atera du berriki: 11 eragileren (gaur-gaurkoz 36 daude Bizipozan) egunerokoa kontatu dute, hamabina abesti eta bideoklip eginda. Horietako bat da Izan Inurrirena. Podcastak bezala, (Min)bizi izena du abestiak: Oihana Iguaran bertsolariak sortu du letra eta Idoia Asurmendi musikariak jarri dio ahotsa. Goiko QR kodea eskaneatuta, inurrien lana ezagutuko duzue.

Julenek adierazi du "oso eskertuta" daudela inurriak eta Bizipozak "izugarritzko lana" egiten duela. "Mundu berri bat nahi dugun guztiok saretzeko aukera ematen digu".



# Oles egin dute

## Santa Ageda bezpera ospatu dute lasarteoriatarrek

Lurra neguko lozorrotik esnatzeko helburuarekin ederki astindu zituzten makilak, hilaren 3an, Sasoeta ikastetxeko haurrek, eta horiek bezala, Santa eskean aritu ziren ere herriko zenbait eragile egun bat geroago. Makilei indartsu eragin zieten denek ala denek eta ahotsak ez zien hutsik egin.

Zabaletako bizilagunak izan ziren makilak astintzera atera ziren lehenak. Baserritar jantzi dotoreak soinean, auzoko plazan, eta zabalgunearan erdian abestu zituzten lehen kantak. Ondoren, makilak eta kantutegia eskuetan, auzoan barrena ibili ziren. Arratsaldean, berriz, hitzordua bikoitza izan zen. Erketzeko lagunek Santxo tabernan abestu zituzten lehen doinuak, eta erdigunean, tabernaz taberna eta kalez kale egin zuten beraien saioa.

Ordubete geroago, Sagardotegi kalean, Jalgi Kafe Antzokiaren atarietako batean batzen joan ziren txistulariak eta Xumelako lagunak. Handik, azkar joan ziren Brigitarren komentura; makil luzeak eskuetan, zapi gorriak lepoan, agertu zitzaizkien zortzi moja. Bi urteko etenaren ondoren, pozik elkar ikusi zuten bi aldeek, eta aurrekoetan bezala, irrintziak egitera animatu zuten mojetako bat. Bi orduz ibili ziren erdialdeko kale eta tabernetako giroa alaitzen, Okendon bukatu aurretik.



Zabaleta auzoko bizilagunek, Basotxo plazan, auzo elkartearen atarian egin zuten lehen kantu saioa. TXINTXARRI



Bi urteko etenaren ostean, pozik elkartu ziren Xumela koruko kideak eta Brigitarren komentuko mojak; irrintziak



Erketzeko lagunek erdigunean, tabernaz taberna eta kalez kale egin zuten beraien saioa. TXINTXARRI







ak; irrintziak egitera animatu zuten horietako bat. TXINTXARRI



Gogotsu astindu zituzten makilak Sasoeta ikastetxeko ikasle gazteek. TXINTXARRI

### Garaikoetxean eta Landaberrin kaldereroak ospatu dituzte



Goian, Garaikoetxeakoen festa, eta behean, Landaberrikoena. TXINTXARRI

# ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

## DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24 OTSAILAREN 13-tik 24-ra



**Landaberri eraikina DBH 1-2**  
Pintore 2,  
20160 Lasarte-Oria  
943 89 94 94



**Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa**  
Buenos Aires aldapa 1,  
20160 Lasarte-Oria  
943 89 94 92



[www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)

12-18 urte  
DBH-Batxilergoa  
Jangela zerbitzua  
Euskal kultura eta  
aniztasuna bultzatuz



# Naroa Furundarena, Espainiako txapeldun

23 urtez azpiko Espainiako txapelketa lehiatu dute Antequeran, Malagan. Naroa Furundarena herritarrek bi probatan parte hartu du. Jauzi hirukoitzean, azken saiakeran jantzi du urrezko domina eta bere marka pertsonala ondu du: 13,23 metro

**Txintxarri**

Ostadar SKTko Naroa Furundarena atletak 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartu du hilaren 4an eta 5ean. Bi probatan izan da herritarra finaletan lehiatzen: luzera jauzian eta jauzi hirukoitzean.

Azken lehia hori zirraragarria izan zen. Furundarenak lehen jauzian lortu zuen saioko buru jartzea 12,80 metroko jauziarekin. Hirugarren saiakeran postua galduko zuen, ordea; Alcampo Scorpio 71 taldeko Maria Gonzalezek 5 zentimetro gehiago egin zituen.

Horrek zortziko finalean azken aurreko tokian jauzi egitea eragin zuen. Furundarena lehen postua



Furundarena, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

eskuratzen arriskatu zen eta hurrengo bi saiakeretan

baliogabeko jauziak egin zituen. Gonzalezek ere ez zuen bere marka hobetzerik izan.

Azken aukeran bere onena eman eta 13 metroko langa igaro zuen herritarrek. 13,23 metroetara iritsi zen Furundarena; bere marka pertsonala metro erdi ondu eta Gipuzkoako hirugarren errekorrik onena egin zuen atleta gazteak.

Gonzalezek ezin izan zuen gainditu eta urrezko domina jantzi zuen Lasarte-Oriako atleta gazteak.

Luzera jauzian, aldiz, bosgarren postuan sailkatu zen Ostadarreko atleta, 5,87 metroko markarekin.

Aletismo saileko arduradun Oscar Goikoetxea pozarren dago

## Errepidean ere markak ontzen

Uliako Gimnastikako 10 km. proba lehiatu zen hilaren 5ean, Donostian. Herritar ugari izan ziren lehiatzaile federatu zein herrikoian, baita bost kilometroko proban ere.

Federatuen mailan, nazioarteko lasterkariekin borrokatu zen Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarra. Proba azkarra izan zen eta Presak distantzia horretako marka pertsonala ondu zuen 47 ehunekotan. Herritarrek 31.30ean egin zuen 10 kilometrotako bidea.

Proba herritarrean, aldiz, David Cordero herritarrek (34.41) zazpigarren postuan gurutzatu zuen helmuga.



Presa, helmugara iristen. ION ZUGASTI

herriko atletak egindako lanarekin. Gainera, prestatzaileak nabarmendu duenez, 23 urtez azpiko Europako txapelketarako gutxienekotik zazpi zentimetro geratu da herritarra.

**Proba librea**

Bestalde, atletismo saileko Alaia Ramos, Nora Manzanal, Duñike Muñoz eta Iraia Alkorta kideek

Gipuzkoako federazioak antolatutako proba libreetako E saiokari aurre egin zioten Antonio Elortza belodromoan, hilaren 4an.

Ramosek (9,52 m.) eta Manzanalek (7,62 m.) pisu jaurtiketan parte hartu zuten; Muñozek (29.99) eta Alkortak (28.24), aldiz, 200 m. lasterketan. Ramos izan zen bere marka ontzen bakarra.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
<b>Ostadar SKT - Leintz Arizmendi KE</b> Igandea. 16:55. Michelin kirol gunean.
<b>GORENGOEN MAILA</b>
<b>Allerru KKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:00. Plazeta, Lezon.
<b>ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Texas Lasarteerra CF - San Marcial CD</b> Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
<b>Arrupe Chaminade CD - Ostadar SKT</b> Ostirala. 20:45 Cesar Benito, Donostian.
<b>OHOREZKO JUBENIL MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Vasconia CD B</b> Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENIL 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Lagun Onak CD B - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 12:00. Garmendipe, Azpeitian.
<b>JUBENIL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT C - Lazkao KE B</b> Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean.
<b>Kostkas KE D - Texas Lasarteerra CF</b> Igandea. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.
<b>OHOREZKO KADETE MAILA</b>
<b>Astigarragako Mundarro FKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:00. Zarkumendegi, Astigarragan.
<b>KADETE 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT C - Sporting de Herrera</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>Usurbil FT B - Texas Lasarteerra CF</b> Larunbata. 12:00. Harane, Usurbilen.
<b>Oiartzun KE B - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 13:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.
<b>OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT - Aretxabaleta KE Uda</b> Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

<b>INFANTIL TXIKI, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT - Trintxarpe CD</b> Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
<b>INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA</b>
<b>Ilintxa SD - Texas Lasarteerra CF</b> Larunbata. 10:15. Irene Paredes, Legazpian.
<b>INFANTIL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT B - Mundaiz SCD</b> Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
<b>Lazkao KE B - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 15:30. Artizti Handi, Lazkaon.
<b>INFANTIL F8</b>
<b>Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 09:00. Berio, Donostian.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>1. MAILA</b>
<b>Herrikide - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones</b> Ostirala. 20:00. Eskolapioak ik., Tolosan.
<b>2. MAILA</b>
<b>Eguzki ISU Leihokak - Lauburu KE Ibarra</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>GAZTEEN MAILA</b>
<b>Anoeta FT - Eguzki Bodegas Ayesa</b> Igandea. 11:35. Abraham Olano kirol., Anoetan.
<b>INFANTIL MAILA</b>
<b>Ingou Aloña A - Eguzki AF</b> Larunbata. 10:30. Zubiko kirol., Oñatin.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA</b>
<b>Vivanta Lezo SKT - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:00. Galtzaraborda kirol., Erreterian.
<b>SENIOR 3. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Erroibide AIB</b> Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

<b>JUNIOR PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT A - ZAST 006</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>Bera Bera Bultz - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 18:00. Manteo kirol., Donostian.
<b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>
<b>Ostadar SKT - GSR Ointxe!</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>SaskiAxular Uliia - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Benta Berri kirol., Donostian.
<b>INFANTIL ERRENDIMENDU URREA</b>
<b>Ostadar SKT - Latz taberna ISB</b> Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA</b>
<b>Sarralle ISB - Ostadar Urdina</b> Larunbata. 12:30. Azpeitiko kiroldegian.
<b>INFANTIL PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT Beltza - Andraitz KE 2</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>BOLEBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Ostadar SKT - Navarvoley</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>EUSKAL LIGA, 2. SENIOR</b>
<b>Ostadar SKT - Navarvoley Fercor Ser.</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETEA</b>
<b>Ostadar SKT B - Arizmendi B</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>Salbatore Mitxelena - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 12:30. Lizardi BHL, Zarautzen.
<b>INFANTILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Lizardi Bat</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

<b>PILOTA</b>
<b>TRINKETA BANAKA, JUBENILAK</b>
<b>Hernani (Manterola) - Intza (Diez de Gereñu)</b> Larunbata. 10:30. (1. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>Gazteleku (Salbador) - Intza (Olazabal)</b> Larunbata. 10:30. (2. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>Hernani (Urdangarin) - Intza (Urdanpilleta)</b> Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>Gazteleku (Cestau) - Intza (Elosegui)</b> Larunbata. 10:30. (4. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>UDABERRI TX., JUBENILAK 1. MAILA</b>
<b>Hernani 1 - Intza</b> Igandea. 16:30. (1. partida) Udalekoa, Hernanin.
<b>UDABERRI TX., JUBENILAK 2. MAILA</b>
<b>Intza - LAPKE</b> Igandea. 11:00. (1. partida) Michelin kirol guneko pilotak.
<b>ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 2. MAILA</b>
<b>Alde zaharra 1 - Intza</b> Larunbata. 18:00. (1. partida) Egia, Donostian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Jaen Rugby</b> Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
<b>18 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Danon Artean Rugby Taldea</b> Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
<b>10 ETA 12 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Beltzak RT eskolako kideek Topaketa izango dute.</b> Igandea. 11:00. Ordizian.

<b>IGERIKETA</b>
<b>ALEBIN LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo alebinek ligako 4. jardunaldia lehiatuko dute.</b> Larunbata. 18:15. Maialen Chourraut kirol.
<b>KZL TEST LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo benjaminen KZL/ Test Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute.</b> Larunbata. 15:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>JUDO</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>LOKEko infantil mailako judoek Gipuzkoako txapelketako 2. fasea jokatu dute.</b> Larunbata. 15:30. Urbeltz fr., Legazpian.
<b>GIMNASTIKA</b>
<b>ESKOLARTEKO TXAPELKETA, ALEBIN</b>
<b>LOKEko alebin mailako gimnastek Eskolarteko txapelketari hasiera emango diote.</b> Larunbata. 14:45. Karmelo Balda, Donostian.
<b>ESKOLARTEKO TXAPELKETA, INFANTIL</b>
<b>LOKEko gimnasta gazteek infantil mailako Eskolarteko txapelketako lehen fasea jokatu dute.</b> Igandea. 10:00. Karmelo Balda, Donostian.
<b>ATLETISMO</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar SKTKo kideak eta herritarrek 16, 18 eta 20 urtez azpiko txapelketan lehiatuko dira.</b> Larunbata. Egun osoa. Antonio Elortza belodromoan, Donostian.
<b>EUSKADIKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar SKTKo Oihana Igarizek jaurtiketa luzean Euskadiko txapelketan parte hartuko du.</b> Larunbata. 15:00. Durango, Bizkaian.



# Igerilariek, uzta ederra Gipuzkoako txapelketan

Buruntzaldea IKTo junior mailako igerilariek domina, marka eta gutxienero berriak eskuratu dituzte Gipuzkoako txapelketan. Garazi Etxeberria, gainera, absolutu mailako podiumera igo da bitan eta junior mailako hirugarren postuan sailkatu da

## Txintxarri

Hitzordu garrantzitsua izan zuten Buruntzaldea IKTo infantil, junior eta absolutuek hilaren 4an eta 5ean, Gipuzkoako txapelketan. Bergarako Agorrosin igerilekuan taldeko hamabi kidek sailkapen orokorreko hirugarren postua, bost urre, zilar bat eta bi brontze eskuratu zituzten. Junior nesken erreleboa ere podiumean izan zen. Era berean, markak ondu eta Espainiako Udako txapelketarako, zein Euskal Herriko Neguko Txapelketarako gutxienero berriak dituzte.

Junior mailan lortu zituzten emaitzarik hoberenak. Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui, Saioa Elola eta Miren Sarobe podiumera igo ziren (ikus ondoko taula).

Etxeberriak, gainera, maila absolutuko urrea eskuratu zuen estilo libreko 50 m. eta 100 m. probetan. Eta egindako hiru proba onenen FINA puntuak kontuan izanik, sailkapen orokorrean junior mailako hirugarren postua lortu zuen igerilari gazteak.

## Markak eta gutxieneroak

Dominak ez ezik, marka pertsonal berriak eta txapelketarako sailkapenak erdietsi zituzten. Guztira 23 marka ondu zituzten igeriketa taldeko kideek.

Garazi Etxeberriak Espainiako Neguko Txapelketako markak buruan bazituen ere, ehuneko gutxitara geratu zen, podiumaren gorenean egon zen probetan. Hala ere, udako hitzordurako txartel berri bat lortu zuen, 100 m. libre saioan.

Iker Gorostegui eta Miren Sarobek Euskal Herriko Txapelketarako gutxienero berriak egin zituzten. Gorostegui hiru gehitu ditu bere zerrendara (50 m. eta 100 m. libreak eta 400 m. lau estilo); Sarobek, aldiz, bakarria (400 m. lau estilo).

Horiez gain, lau infantil Gipuzkoako Udako Txapelketarako sailkatu dira: Irati Etxeberria (100



Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

### Urrea

- **Garazi Etxeberria** 50 m. libre, junior zein absolutu mailan 100 m. libre, junior zein absolutu mailan
- **Iker Gorostegui** 400 m. lau estilo, junior mailan.

### Zilarra

- **Saioa Elola** 800 m. libre, junior mailan.

### Brontzea

- **Garazi Etxeberria** 200 m. libre, junior mailan.
- **Miren Sarobe** 400 m. lau estilo, junior mailan.

### Sailkapen orokorra

- **Garazi Etxeberria** 3. postua, junior mailan

m. lau estilo), Mayi Gorostegui (100 m. eta 200 m. libre), Amaia Iparragirre (100 m. eta 200 m. libre) eta Nora Miguelez (100 m. eta 400 m. lau estilo).

### Erreleboa ere podiumean

Buruntzaldea IKTo igerilariek errelebo probetan ere parte hartu zuten. Junior mailako neskek (Garazi Etxeberria, Saioa Elola, June Lopez eta Miren Sarobe) 4x100 m. libreko errelebo zirrargarria lehiatu zuten. Azken momentura arte borrokan egon ziren Buruntzaldea eta Bidasoa XXI taldeen laukoak; azkenean, bigarren izan ziren.

Bestetik, 4x50 m. libreko errelebo mistoak (Garazi

Etxeberria, Miren Sarobe, Unai Somovilla eta Iker Gorostegui) 1.49,08ko denborarekin laugarren postua eskuratu zuen.

### Gipuzkoa Saria

Bestalde, gutxienero ez zuten igerilariek Gipuzkoako Neguko XIII. Sarian bildu ziren Andoingo Allurralde kiroldegian. Gipuzkoa osoko 140 igerilari parte hartu zuten eta Buruntzaldea IKTo ordezkarik bakarria izan zuen, Ane Meyer.

Meyerrek bular eta estilo libreko 100 m. probak lehiatu zituen. Lehenean kanporatua izan bazen ere, estilo libreko saioan 1.22,84 egin zuen, bere marka pertsonala berdinduz.



Fernandorena, Urdampilleta eta Delgado (ezkerretik eskuinera), lortutako sariek. LOKE TENIS

## LOKEko tenistak, Eskolarteko txapelketako podiumean

Lasarte-Oriako tenis jokalaria gazteak alebin, infantil eta kadete mailako bakarkako finaletan lehiatu dira

### Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) tenis saileko kideek bakarkako Eskolarteko txapelketa amaitu dute. Alebin, infantil eta kadete mailetan banatuta, hamazazpi gaztetxok parte hartu dute azken hilabeteetan lehiaketan. Azkenik, bost izan dira azken asteburuetan bai txapelketa nagusian, baita kontsolazioan ere finalera iritsi eta lehen postuetan sailkatu diren herritar gazteak.

Gabriele Fernandorena Yurritak iazko garaipena berritu du baina maila berrian. 2022an alebin mailako txapeldun izan

zen eta oraingoan infantil mailan igo da podiumera.

Siria Delgado Negueruela alebinak eta Unax Urdampilleta Murugarren kadeteak aldiz euren mailako bigarren postua erdietsi dute finala lehiatu ostean.

Kontsolazio lehiaketako finaletan ere izan dira LOKEko ordezkariek. Naroa Perurena Lobo eta Pau Olano Boixados alebin mailako borrokan izan ziren eta biak garaitu zituzten euren aurkariak.

Taldeko prestatzaile Mari Asun Yurritak taldeko jokalaria guztiak zoriondu ditu egindako lanarengatik.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Ibilbidea eta elkartasuna

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek urteko lehen ibilaldia egin dute, Hondarribia aldean. Irungo Bentan jaitsi eta Jaizubiako padurak, Guadalupeko ermita eta gotorlekua zein Higer itsasargia igarotzen zituen ibilbidea egin zuen taldeak. Ez da urte hasiera honetan egin duten jarduerak bakarria izan. Urtarrilaren 21ean, Eva Espuelasek eskainitako *pilatwalk* modalitateko ikastaroa jaso zuten. Hilaren 12an, berriz, Aspanogiren 25. urteurreneko ekimenetako bat den X. Ipar martxan izango da herriko taldea eta lasarteoriarrak gonbidatu nahi dituzte jardueran parte hartzera. Izen ematea [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) orrialdean egin behar da.



# LOKEko gimnastek, emaitza onak lehen saioan

LOKEko gimnastek txapelketen denboraldia hasi dute; Amateur txapelketa eta Benjamin topaketa izan dituzte. Nahiz eta kode aldaketa urtea izan, taldeko federatuek lan ederra egin eta euren mailetako lehen postuetan sailkatu dira

## Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek emaitza onekin hasi dute denboraldia. Bergaran lehiatutako Amateur txapelketako lehen hitzorduan sailkapeneko goiko postuetan izan dira herriko kirol elkarteko kideak bakarka zein taldean (Ikus taula).

LOKEko entrenatzaileak pozarren daude gimnastek egindako lanarekin.

Denboraldiko lehen lehiaketa honetan, gainera, kode aldaketa izan dutela azaldu dute prestatzaileek: "Lau urtero lehiaketa kodea berritzen da eta gimnasten erakustaldietan elementuak moldatu edo gehitu behar ditugu".

Horregatik gimnasten eta entrenatzaileen urduritasuna handia zela nabarmendu dute: "Kirolariak kirioak dantzan zituzten lehen erakustaldian tresnekin ongi jardun eta erorikorik ez izateko; guk, horiez gain, kodea ongi ulertu izanaren ezinezona ere bagenuen".



Paula Martinez, pilota lana hasi baino lehen. LOKE GIMNASTIKA

Alabaina, guztia ongi joan zen eta LOKEko gimnastek Gipuzkoako txapelketarako sailkapenari begira pauso garrantzitsua eman zuten.

Bestalde, taldeko txikiak benjamin topaketa izan zuten Hernanin. Bertan Andoain, Lasarte-Oria, Hernani eta Donostiako ikastetxe ezberdinetako haurrak bildu ziren eta bikain jardun ziren kirol elkarteko ordezkariak.

## Emaitzak

### Senior A maila

- Garazi Gomez 6º

### Senior B maila

- Paula Martinez 2º
- Yohana Reyes 12º

### Jubenil A maila

- Mirian Prieto 2º

### Jubenil B maila

- LOKE 2º
- Aitana Molano 3º
- Maria Polina 5º
- Iraia Berasarte 7º

### Kadetea A maila

- Maitane Sarmiento 2º

### Kadete B maila

- Saioa Boyero 2º
- Ane Lopez 9º
- LOKE 1 2º
- LOKE 2 12º

## Intzako pilotariak, zazpi partidatik hiru garaipen

Alebin 2. mailako bikotea eta Urdanpilleta zein Diaz de Gereñu gailendu dira txapelketa ezberdinetako hitzorduetan

## Txintxarri

Intza KEko pilotariak txapelketa ezberdinetako jardunaldiekin egin zieten aurre; batzuetan kale besteetan bale egin zuten.

Errendimendu mailako lehiakizzen zen Michelin kirol guneko pilotalekuan hilaren 4an. Alebin 2. mailako Intza-Gazteleku neurketak eman zion hasiera arratsaldeari. Lau pilotari gazteak ederki jardun ziren. Markel Lopezek eta Eñaut Huizik serio jokatu eta aurkariak

baino akats gutxiago eginez garaipena erdietsi zuten, 16-6.

Bigarren partidatan, Lier Fernandez eta Oier Jauregi lehen mailako bikoteak ere lan ona egin zuten kantxan. Azken emaitzan ez zuten islarik izan, ordea; Ataunek 8-16 irabazi zuten.

Era berean, Udaberri txapelketan aurrera doaz herriko pilota elkarteko jubencil mailako bikoteak. Ez Lasarte-Oria ezta Azpeitian ere ez zuten zortetarik izan.

Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta jubencil Gazteleku 2ren aurka neurtu zituzten indarrak etxean. Urdanpilletaren eskuko mina tarteko, andoaindarrak 3-22 gailendu ziren.

Azpeitian Beñat Olazabalek eta Pedro Elosegui joko ona erakutsi arren, Ilunperen jokalarien nagusitasuna nabaria izan zen neurketa osoan zehar; 22-11 galdu zuten Intzako bikoteak.

Trinketeko bakarkako lehiaren garaipen adina porrot izan zuten Intzako jubencil pilotariak.

Urdanpilletak eta Diaz de Gereñuk euren neurketak garaitu zituzten Behar Zanaren Arruti eta EPLeren Lizarazuren aurka.

Elosegui zein Olazabalek, aldiz, ezin izan zituzten Hernaniko pilotariak gailditu.

## 1. mailako Ostadarrek garaipen garrantzitsua eskuratu du

Sailkapeneko buru den Tecnun garaitu du saskibaloia taldeak eta lehen postuetan egoteko gai dela erakutsi du

## Txintxarri

Ostadar 1. mailako taldeak hilaren 4an Maialen Chourraut kiroldegian jokaturako norgehiagokan multzoko lehen sailkatua izan zuten aurrez aurre, Tecnun. Neurketa gogorra aurreikusten bazen ere, astean zeharreko lanak eta jokalarien jarrerak garaipena eman zion talde urdin-beltzari.

Kantxara atera eta Donostiako taldeari aurre egiteko prest zeudela argi utzi zuten etxeko taldeak. Joko azkarra eta defentsa sendoari esker, partida hautsi zuten talde urdin-beltzak eta markagailuan aurre hartu zuten, 26-7.

Bigarren laurdenean, joko dinamikari itzulia eman zion Tecnune, ordea. Ostadarren defentsaren gorabeherek eta donostiarren saskiratze portzentaiaren hobekuntzak markagailuan gerturatzea ekarri zuten eta atsedendian 36-29ko markagailua zegoen.

Abagunea arazoak aztertzeo erabali zuten etxeko taldeak eta lehenengo laurdeneko joko maila berreskuratzeko asmoz, taktika moldaketa batzuk egin zituzten. Emaitza ona izan zen eta Ostadarrek Tecnunen gorakada geratu zuten. Defentsa sendoari



Ostadarren erasoetako bat. TXINTXARRI

eta trantsizio joko azkarrari esker, berriro dinamika positiboa lortu zuten etxeko taldeak eta 26-9ko partziala egin zuten.

Azken laurdena 62-38 hasi zen eta garaipena arriskuan ez zegoela jakinda, Ostadarreko jokalariek lasaitu ziren. Hortaz baliatuz, Tecnune alde murriztu zuten eta azken emaitza 70-57 izan zen.

Gaizka Urreiziti eta Beñat Eleizegi prestatzaileek neurketaren irakurketa positiboa egin dute: "Partida serioa egin dute jokalariek. Goiko postuetan egoteko gai dela erakutsi du taldeak eta oraintxe hirugarren postuan da bigarrenarekin berdinduta (9 p.) eta Tecnun (10 p.) baino partida bat gutxiago jokatu dugu".



TXINTXARRI

## Borrokatutako neurketa


Errugbiaren gozatu ahal izan zuten zaleek hilaren 5ean Michelin kirol gunean. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTren 14 urtez azpiko taldeak Txingudi eta Baztan taldeen arteko konbinatua izan zuten bisitan. Ederki borrokatu ziren gaztetxo guztiak; azkenean, aurkariak eskuratu zuten garaipena, 10-39. Bestalde, Beltzen taldeko kide Eric Duranek eta Iker Carrillok Gipuzkoako selekzioko 13 urtez azpiko, zein 14 urtez azpiko taldeekin lan egiteko deia jaso dute, hurrenez hurren.




## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK




**Nora**  
Zorionak Nora!!!! Oso ondo pasa zure urtebetze eguna. 14 muxu handi. Asko maite zaitugu.



**Oihana**  
Zorionak sorgina zure 7. urtebetetzean, ama, aita eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!!



**Egoi**  
Zorionak Egoi !!! Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat!!!



**Markel eta Josune**  
Zorionak bikote, oso ondo pasa zuen urtebetetzeetan. Muxu pottolo bat familiaren partetik!!

## OHARRA

### Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.




Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.


Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzue-eta!

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 10




Larunbata, 11




Igandea, 12




Astelehena, 13




Asteartea, 14



Asteazkena, 15



Osteguna, 16



Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## SUDOKUA

		4		6		3		
		7	8		1		2	
5			7				6	1
	5	8		1				9
	9	3		7		1	4	6
	4		6		2		8	
4	8			3		6	1	
		5	1	2	6	4		8
				8			9	

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 10	DE ORUJE	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 11	ACHA-ORBEA	DE ORUJE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 12	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 13	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 14	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 15	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 16	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Labumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84  
KIROLDEGIA: 943-37 61 82  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79  
KIUB: 943-36 16 05  
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21  
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60  
DYA: 943-46 46 22  
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53  
UDALTZAINAK: 943-36 24 42  
ERTZAINITZA: 943-53 88 40  
SOS DEIAK: 112



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUA

Logela bat alokatzen dut emakume batentzat, etxebizitza partekatu batean, Lasarte-Oria erdialdean. Giro lasaia. Harremanetarako zenbakia, 666 32 05 20.

### LANA

#### ESKAERA

Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut, lana idi erdira. Harremanetarako zenbakia: 695 78 32 02.

### ESKARIA

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauzez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo

nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta

eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsuan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketara.

Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

### BESTELAKOAK

#### HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646 82 44 66

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

### Administrataria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

### Banatazaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Endika Merchan, Gorka Morales,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 10

### LASARTE-ORIA Zinema

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren XV. aldiaren barruan, argazki erakusketa bat prestatu dute. Sarrera, doan..Hilaren 24ra arte izango da hori bisitatzera joateko aukera. Kultur etxea, 17:00etatik 21:00era.

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko aurreneko proiektzioa egingo du: *Manticora* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz sarean eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 22:00etan.

## LARUNBATA 11

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso bazkari literarioa antolatatu du Hitzordu horretarako txartelak llargi eta Tiburtzio Artizar tabernetan eros ditzakete herritarrek, 25 euroren truke, edo langabezia egonez gero, 20 euro ordainduta. Gai jartzailea: Uxue Alberdi. Musikaria: Iban Urizar. Bertsolariak: Ane Labaka eta Alaia Martin. Xirimiri elkarte, 14:00etan.

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, herriak Euskal Inauteriak ospatuko ditu. Pandemiaren aurreko formatua berreskuratuko duela azpimarratu dute antolatzaileek. Gauzak horrela, hauxe da hilaren 11rako prestatu duten egitaraua:

**16:30ean**, ekitaldia Zubietako plazan. Ondoren, kalejira Lasarte-Oriarantz.

**17:00ean**, kalejira herrian barrena. Geldialdiak: Hipodromo etorbidea, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia, Largoenea kaleko biribilgunea, Okendo plaza.

**19:00etan**, senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia.

Zubieta, 16:30etik aurrera.

## IGANDEA 12

### LASARTE-ORIA Zinema

*Rabbit, pazko arrautzen lapurreta handia* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio



**LASARTE-ORIA Euskal Inauteria.** Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, herriak Euskal Inauteriak ospatuko ditu. Pandemiaren aurreko formatua berreskuratuko duela azpimarratu dute antolatzaileek. Gauzak horrela, egitarau erakargarria prestatu dute hilaren 11rako (ikus beheko informazioa). Zubieta, 16:30etik aurrera.

dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atarian eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Operación Fortune* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxean nahiz sarean eros daitezke. Kultur etxea, 19:30etan.

## ASTELEHENA 13

### LASARTE-ORIA Zinema

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren XV. aldira ekarri dituzten ikus-entzunezkoen bigarren sorta proiektatuko dute. Ordu eta erdiko saioa izango da. Sarrera, doan. Kultur etxea, 19:00etan.

## OSTEGUNA 16

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa egingo dute. Sarrera, doan. Kultur etxea, 19:00etan.

## ASTELEHENA 20

### LASARTE-ORIA Zinema

CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren XV. aldira ekarri dituzten ikus-entzunezkoen azken sorta proiektatuko dute. Ordu eta erdiko saioa izango da. Sarrera, doan. Kultur etxea, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren proiektzioa egingo du: *Broker* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz sarean eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 22:00etan.

## LARUNBATA 25

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Pinocchio* antzezlanaren emanaldia egingo du Txalo Produktzioak-ek, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabanken webgunean eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

## IGANDEA 26

### LASARTE-ORIA Zinema

*El asombroso Mauricio* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atarian eros ditzakete herritarrek. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*The Whale* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxean nahiz sarean eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

#### 'Manticora'

Ostirala 10

22:00.

#### 'Rabbit, pazko

arrautzen

lapurreta handia'

Igandea 12

17:00.

#### 'Operación

fortune'

Igandea 12

19:30.

#### 'Broker'

Astelehena 20

22:00.

### USURBIL

#### URBIL

#### 'Llaman a la

puerta'

Ostirala 10

17:00, 19:30,

22:00.

Larunbata 11

17:00, 19:30,

22:00.

Igandea 12

17:00, 19:30,

22:00.

'Avatar: el

sentido del

agua'

Ostirala 10

16:30, 18:30,

20:30.

Larunbata 11

16:30, 18:30,

20:30.

Igandea 12

16:30, 18:30,

20:30.

'La niña de la

comunidad'

Ostirala 10

17:15, 19:45,

22:15.

Larunbata 11

17:15, 19:45,

22:15.

Igandea 12

17:15, 19:45,

22:15.

'El gato con

botas: el último

deseo'

Ostirala 10

15:55, 18:40.

Larunbata 11

15:55, 18:40.

Igandea 12

15:55, 18:40.

'Los fabelman'

Ostirala 10

16:05, 18:50,

21:55.

Larunbata 11

16:05, 18:50,

21:55.

Igandea 12

16:05, 18:50,

21:55.

'Almas en pena

de inisherin'

Ostirala 10

16:00, 21:30.

Larunbata 11

16:00, 21:30.

Igandea 12

16:00.

'Axtérix y obélix

y el reino medio'

Ostirala 10

16:15.

Larunbata 11

16:15.

Igandea 12

16:15.

'El piloto'

Ostirala 10

19:20, 22:10.

Larunbata 11

19:20, 22:10.

Igandea 12

19:20, 22:10.



## LABURPENA

### 'Llaman a la puerta'

**Zuzendaria:** M. Night Shyamalan. **Gidoia:** M. Night Shyamalan, Steve Desmond, Michael Sherman. **Novela:** Paul Tremblay. **Argazkia:** Jarin Blaschke, Lowell A. Meyer. **ekoizleak:** Universal Pictures, Blinding Edge Pictures, Filmnation Entertainment, Perfect World Pictures, Wishbone Entertainment Inc. **Distribuidora:** Universal Pictures. **Herialdea:** AEB (2023). **Iraupena:** 100 minutu. **Generoa:** Drama, beldur eta intirga Thrillerra. **Aktoreak:** Dave Bautista, Jonathan Groff, Ben Aldridge, Kristen Cui, Nikki Amuka-Bird, Rupert Grint, Abby Quinn, William Ragsdale, Satomi Hofmann, Kat Murphy, McKenna Kerrigan, Clare Louise Frost, Robert J Morgalo, Debbie Lay, Jerry Lobrow, Nancy Marron Asti, Brian Foreman, etab.

## Bahiketa bihurtuko den oporraldia

Oporraldi sasoi batean, urrun dagoen baso bateko txabola batean, neskato bat eta bere gurasoak lau ezezagun armaturen bahitu bihurtuko dira, eta familia apokalipsia saihesteko ezinezko erabaki bat hartzera behartuko dituzte. Kanpokoarekin apenas

eduki ahal izango dute kontakturik, familiak erabaki beharko du zer sinetsi, dena galdutzat eman baino lehen.

M. Night Shyamalana zuzendariaren beldur eta intriga thrillerraz gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek.



# EUSKAL INAUTERIAK

## OTSAILAK 11 LASARTE-ORIA

16:30 | Zubietan ekitaldia

Ondoren, Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

17:00 | **DESFILEAREN HASIERA** (Hipodromoko zubitik herritik barrena)

19:00 | **SENIDETZEA, DANTZA eta SUAREN EKITALDIA**  
(Okendo plazan)

**Amaitzeko:** Partaideentzako txokolatada goxoa Okendo plazan

Eguraldi txarra eginez gero, festa 17:30ean hasiko da  
Oriarte-Landaberriko estalkian



**KOMERTZIO TXIKI  
HERRI HANDI**

**LASARTE-ORIA**

# txintxarri

-PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?

Hilabetean  
**behin**

Hilabetean  
**bitan**

**ostiralero**

- Zure datuak eta irudia erakutsiko ditugu.
- TXINTXARRI astekaria da Lasarte-Oriako erakusleho ikusiena.
- 8.300 ale banatzen ditugu buzoi eta komertzio guztietan DOAN.
- San Pedro eta Gabonetako berezietan deskontuak.
- Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

**ESKATU INFORMAZIOA! TARIFA BEREZIAK GUK ZU ETA ZUK GU LAGUNTZEKO!**

Geltoki kalea 4 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 14 48 • 646 82 44 66 • [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)